



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko urriaren 14a

115. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, zeinaren bitartez aldatzen baita 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa. Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak onetsitako irizpena (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko zuzemenak egin ditzan Gobernu zentralaren aitzinean, Nafarroako erakundeen esku gera dadin parke eoliko edo fotovoltaikoak paratzeko ekimen guztien gaineko erabakimena. Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztu du (16. or.).

—Adierazpen instituzionala, Pobrezia Desagerraraztearen aldeko Nazioarteko Eguna ospatzearen kariatara. Eledunen Batzarrak onetsia (17. or.).

—Adierazpen instituzionala, Bularreko Minbiziaren Nazioarteko Eguna ospatzearen kariatara. Eledunen Batzarrak onetsia (17. or.).

—Adierazpen instituzionala, Osasunako jokalaria baten aurkako jokabide sexista dela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (18. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, LC Districts proiektuari buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (19. or.).

—Galdera, Osasunari buruzko Foru Lege berriari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (19. or.).

—Galdera, kirurgian batez beste itxaron beharreko denborari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (20. or.).

—Galdera, COVID-19aren pandemiaren bilakaera aztertzeke aginte-koadroen datuei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (20. or.).

—Galdera, Nafarroako txertoen Aholku Batzorde Teknikoari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (21. or.).

- Galdera, aisialdiko eskolen gaineko araudiari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (22. or.).
- Galdera, zezenketetarako azizendarendako laguntzen 2021eko deialdiari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (22. or.).
- Galdera, Lázaro Galdiano Fundazioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko lankidetzaz hitzarmenari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (23. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

- Proposamena, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua aldatzekoa (24. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, zeinaren bitartez aldatzen baita 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.

EKONOMIA ETA OGASUNEKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 138.3 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenaren irizpena, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak onetsitakoa. Foru Lege proposamen hori 2021eko ekainaren 10eko 77. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

IRIZPENA

Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak 2021eko urriaren 6an eta 13an egindako bileran onetsia.

Foru Lege proposamena, zeinaren bitartez aldatzen baita 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Ia hiru urte eman direnean Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea aplikatzen, horren edukian aldaketa eta zuzenketa batzuk egin beharra nabari da, neurri handiagoan betetze aldera Kontratuari buruzko Foru Legeak berak 2. artikuluan jasotzen dituen eraginkortasun eta efizientzia, proportzionaltasun, gardentasun eta osotasun printzipioak.

Horrela, beharrezko irizten zaio testu osoan zuzenketa teknikoak egiteari, izapidetze elektronikoa nagusitu den ingurune batean balio-ekarpenik egiten ez duten izapideak bertan behera utziz prozeduren izapidetzea azkartzeko; gaur egun interpretazioa egitera behartzen duten zertzeladak

argitzeko; aurreikuspen bikoiztuak ezabatzeko; edo espediente guztiei aplikatzekoak diren betebeharrak eta horien salbuespenak egokiro eta proportzionalki ezartzeko.

Azkartze-neurriak sozietate publikoetarako ere ezartzen dira, hala nola bertan behera uztea entitatearen arduradun den administrazioaren txostena, kontratua sortaka zatitzen ez den kasuetan.

Ildo horretan bertan, proposatzen da lehiaren defentsarako agintaritzari aurreitazko txostena eskatu beharraren ordez ezar dadila hari jakinarazteko betebeharra, lehia-murritzapenagatik kontratua sortaka ez zatitzearen kasuan.

Halaber sinpletzen da lehia ezinezkoa den prozeduren izapidetzea, laburtu egiten da jakinarazpen elektronikoen kasuan kontratuen eraginkortasuna eteteko epea, bertan behera uzten da eskaintzen irekitzearen eguna Atarian argitaratzeko betebeharra, eta, gardentasuna hobetzea xede, kontratu baten adjudikazioaren iragarkia argitaratzeko epea murrizten da.

Gaur egun interpretazioa behar duten aferak argitzeari dagokionez, besteak beste ezartzen da kontratazio-mahaiak osatzen dituzten pertsonen arteko eginkizun-banaketa, kide guztien elkartze fisiko edo telematikorik ez dagoenean; lizitazio-eta adjudikazio-zenbatekoak kalkulatzeko modua zehazten da prezio unitariotan egiten diren kontratuetan; arautu egiten da pleguetan edo adjudikazio-hartzailearen eskaintzan jasotakoez beste estipulazio gehigarriak kontratuan jasotzeko modua, lehia-printzipioa urratzen ez denean; kontratatze baldintzak frogatu beharreko unea eta modua argitzeko aldaketa batzuk jasotzen dira; eta beste kontratu batzuetako kaudimenak aprobetxatzeko modua arautzen da.

Horrez gain, transposizio-oker bat zuzentzen da, zerbitzu-emakidei aplikatzeko den Europako

atalaseari dagokiona; transposizio zehatzagoa egiten da Kontratu Publikoetarako Foru Legearen aplikazioa baztertzen deneko kasu batzuei buruz; eta ospitale-erabilerako medikamentuen eskuratzeari halako moduz arautzen da non baldintza orokorren ezarpenerako sistema bat finkatzen baita, beharpenak ezartzeko nahiz ez ezartzeko aukera emanik Administrazioak Osasun Sistema Nazionalaren kargurako finantzaketarako ezarritako prezioan, irekita daudenak hornitzaile-multzo bati, eta modua egonda beste eragile ekonomiko batzuek bat egiteko geroago, aintzat harturik Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2016ko ekainaren 2ko epai batean ezarritako doktrina (Dr. Falk Pharma GmbH-k DAK-Gesundheit-en aurka, C-410/14 afera, 41 eta 42. puntuak).

Testuinguru horretan, eta efizientziaren eta kudeaketa sanitario egokiaren arteko erlaziorik onena zaintzearen, medikamentu-eskurapenerako sistema bat arautzen da, halakoa dena non lizitazio publikoa egin beharrik ez dagoen, jadanik badagoenean administrazio-prozedura bitartez zehazturiko prezio bat, administrazioaren eta farmazia-hornitzailearen artean negoziatua, eta are, kasu batzuetan, arrisku partekatuko akordioak edo gastu-mugarakoak, atxiki egiten direnak eta, beraz, eskuratzeari baldintzak arautzen dituztenak, eta hori Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren erosketari aplikatuko zaie.

Artikulu bakarra. Kontratu Publikoetarako buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea aldatzea.

Bat. Zioen azalpenari paragrafo berri bat gehitzen zaio

“Ospitale-erabilerako medikamentuen eskuratzeari arautzen da eta baldintza orokorren ezarpenerako sistema bat finkatzen da, beharpenak ezartzeko nahiz ez ezartzeko aukera emanik Administrazioak Osasun Sistema Nazionalaren kargurako finantzaketarako ezarritako prezioan, irekita daudenak hornitzaile-multzo bati, eta modua egonda beste eragile ekonomiko batzuek bat egiteko geroago, aintzat harturik Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2016ko ekainaren 2ko epai batean ezarritako doktrina (Dr. Falk Pharma GmbH-k DAK-Gesundheit-en aurka, C-410/14 afera, 41 eta 42. puntuak).

Testuinguru horretan, eta efizientziaren eta kudeaketa sanitario egokiaren arteko erlaziorik onena zaintzearen, medikamentu-eskurapenerako sistema bat arautzen da, halakoa dena non lizitazio publikoa egin beharrik ez dagoen, jadanik badagoenean administrazio-prozedura bitartez zehazturiko prezio bat, administrazioaren eta farmazia-hornitzailearen artean negoziatua, eta are,

kasu batzuetan, arrisku partekatuko akordioak edo gastu-mugarakoak, atxiki egiten direnak eta, beraz, eskuratzeari baldintzak arautzen dituztenak, eta hori Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren erosketari aplikatuko zaie.

Bj. Hiru apartatu berri gehitzen zaizkio 7. artikularen 1. apartatuari. Hona testua:

“I) Honako zerbitzu juridiko hauek:

Lehen. Abokatu bat bezeroaren legezko ordezkari aritzea, Kontseiluaren 77/249/EEE Zuzentarauko 1. artikuluko zentzuarekin, Estatu kide batean edo hirugarren herrialde batean edo nazioarteko adiskidetze- nahiz arbitraje-erakunde batean eginiko arbitraje edo adiskidetze batean, edo Estatu kide bateko nahiz hirugarren herrialde bateko jurisdikzio-organoetako prozedura judicial batean edo agintari publikoekikoan, edo nazioarteko jurisdikzio-organo edo erakundeetan.

Bigarrena. Aholkularitza juridikoa ematea, aurreko apartatuan aipaturiko prozedura baterako prestalan bezala edo aholkagai den arazoa prozedura horien xede izanen dela adierazten duen zantzu zehatza eta probabilitate handia dagoenean, baldin eta aholkularitza-lana 77/249/EEE Zuzentarauko 1. artikularen zentzuan eskaintzen badu abokatu batek.

Hirugarrena. Dokumentu-ziurtatze eta autentifikaziorako zerbitzuak, notario batek eman beharrekoak.

II) Medikamentu-erosketa publikoko akordioak, foru lege honen hogeita batgarren xedapen gehigarri jarraikiz.

m) 4.1 artikuluko b), c), d) edo e) letretan zerrendaturiko entitateetakoren batek sinaturiko kontratuak, kontratu-sinatze horien helburua izan denean eragile ekonomiko edo kontratista izaerarekin parte hartu dueneko kontratu publiko baten kariaz bere gain hartu dituen betebeharrei erantzutea”.

Hiru. 14. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du: 14. artikulua. Jardute-gaitasuna frogatzea”.

Lau. 14. artikuluko 1. eta 2. apartatuak aldatzen dira, eta testu hau izanen dute aurrerantzean:

“1. Adjudikazio-hartzaile izateko proposatua suertatuko den pertsonak bere jardute-gaitasuna eta ordezkartza frogatu beharko ditu foru lege honek ezarritakoari jarraikiz.

2. Berariazko legediak hala ezartzen duen kasuetan, zilegi izanen da lizitatzaileri eskatzea frogatzea dezala inskribatuta dagoela lanbide- edo

merkataritza-erregistro batean, edo kontratuko prestazio den jardueran aritzeko gaikuntza ematen dion beste edozein zertzelada, pertsona ezarrita dagoen Estatuko araudiari jarraikiz”.

Bost. 16. artikulua izenburua aldatzen da. Testu hau izanen du: 16. artikulua. “Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa”.

Sei. 16.1. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“1. Adjudikazio-hartzaile izateko proposatua izanen den pertsona behartuta egonen da kontratua exekutatzeko kaudimen ekonomiko eta finantzarioa duela frogatzera. Kaudimen ekonomiko eta finantzariotzat ulertuko da enpresaren egoera ekonomiko eta finantzario egokia, halakoa non izaera horietako ezein gorabeherak ez duen arriskuan jarriko kontratuaren behar bezalako exekuzioa. Kaudimen ekonomiko eta finantzarioaren maila kontratu bakoitzerako zehaztuko da, eta kaudimen horren ezinbestekotasuna kontratuaren lizitazioak duen zenbatekoaren arabera eta proportzionala izanen da”.

Zazpi. 16.2.c) artikulua bigarren paragrafoa aldatzen da. Testu hau izanen du:

“c) Negozio-bolumen orokorrari buruzko adierazpena, eta, hala behar denean, kontratuaren xedearen antzekoa den jarduera-arloko negozio-bolumenari buruzkoa, eskueran dauden azken hiru ekitaldietakoa gehienez ere, lizitatu behar duenaren erate-egunaren edo jardueren hasiera-egunaren arabera, betiere negozio-bolumen horren erreferentziak eskura dauden heinean.

Urteko gutxieneko negozio bolumen exigitua ez da handiagoa izanen kontratuaren balio zenbatetsia halako bat eta erdi baino, salbu eta behar bezala justifikatutako kasuetan, hala nola obren, zerbitzuen edo horniduren izaerarekin lotutako arrisku bereziekin zerikusia dutenetan. Kasu horretan, 138.3. artikulua aipatzen duen premiei buruzko txostenean adieraziko dira betekizun hori ezartzeko arrazoi nagusiak”.

Zortzi. 16.3. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“3. Kontratuei buruzko iragarkietan, pleguetan edo prozedura negoziatuetako gonbidapenetan, kaudimena frogatzeko zein bide erabiliko diren adieraziko da, aurreko apartatuan aipatutakoen artetik».

Bederatzi. 17. artikulua izenburua aldatzen da. Testu hau izanen du: 17. artikulua. Kaudimen tekniko edo profesionala».

Hamar. 17.1. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“1. Adjudikazio-hartzaile izateko proposatua izanen den pertsona behartuta egonen da kontratua exekutatzeko kaudimen tekniko edo profesionala duela frogatzera. Kaudimen tekniko edo profesionaltzat jotzen da kontratua behar bezala exekutatzeko behar den gaikuntza tekniko edo profesionala, dela aurretik antzeko kontratuetan aritzearen esperientzia izatearen ondoriozkoa, dela behar adina langile eta bitarteko tekniko edukitzearen ondoriozkoa. Kaudimen tekniko edo profesionalaren maila kontratu bakoitzean zehaztuko da, eta kontrataturiko prestazioaren ezaugarrien arabera eta proportzionala izanen da”.

Hamaika. 17.3. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“3. Kontratuei buruzko iragarkietan, pleguetan edo prozedura negoziatuetako gonbidapenetan, kaudimena frogatzeko zein bide erabiliko diren adieraziko da, aurreko apartatuan aipatutakoen artetik».

Hamabi. 18. artikuluko hirugarren paragrafoa kentzen da.

Hamahiru. 18. bis artikulua berria gehitzen da. Testu hau izanen du:

“18. artikulua bis Kontratatzeko gaitasuna frogatzeko dokumentazioaren berrerabilera.

Gaitasunak, ordezkaritza, kaudimena eta enpresa- edo lanbide-gaikuntza frogatzen dituen dokumentazioa, kontratazio-organoak jada eskueran daukana lizitatzailerak aurkeztu zuelako adjudikazio-hartzaile suertatu zen lehenagoko prozedura batean, berrerabili ahal izanen da, baldin eta frogaturiko inguruabarrak ez badira aldatu eta lehenagoko prozeduraren adjudikaziotik hiru urte ez badira igaro.

Dokumentazioaren berrerabiltzea kontratazio-organo bakoitzaren esparruaren barrenean aplikatu ahal da. Horretarako eskaera eginen du lizitatzailerak, eskaintza edo parte-hartze eskaera aurkezten duen unean, adieraziz zein den adjudikazio-hartzaile suertatu zeneko lehenagoko prozedura, zeinetako dokumentazioa erabili nahi duen, eta halaber azalduz indarrean dirautela frogaturiko baldintzek.

Berrerabili beharreko dokumentazioa aztertu ondoren, okerrekotzat edo ez-askitzat jotzen bada, eskatuko zaio zuzendu dezan, foru lege honen 51.2 artikulua ezarritakoari jarraikiz”.

Hamalau. 21. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“1. Exigitzen denean erakunde independentetek jaulkitako ziurtagiriak aurkez daitezela, interesdunak kalitatearen ziurtapenerako arau jakin batzuk betetzen dituela frogatzekoak, erreferentzia egin beharko diete unean-unean indarrean dauden ziurtapenari buruzko europar arauetan oinarrituriko kalitate-ziurtapeneko sistemei.

2. Betiere onartuko dira Europar Batasuneko kide diren beste estatu batzuetan ezarritako erakunde baimenduek jaulkitako ziurtagiri baliokideak. Halaber, kalitatea ziurtatzeko neurri baliokideei buruzko beste froga batzuk onartuko zaizkie lizitatzaille izanen diren pertsoneri, ziurtagiri horiek eskuratu ezin badituzte edo ezarritako epean halakorik lortzeko inolako aukerarik ez badute”.

Hamabost. 24.4.a) artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“a) Kontratazio-organoak faltsutasunaren berri izan zuen egunetik, lizitatzailleak aitortzeagatik edo agintari eskudun batek behin betikoz horrela deklaratu izateagatik, edo kasuko informazioa Lizitatzaileren Borondatezko Erregistroari jakinarazi beharko zitzaion egunetik, 22.1 artikuluko i) letraren kasuan”.

Hamasei. 39.2. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“2. Prestazio bat edo batzuk, elkarrekin zerikusia dutenak, banatuta erabili edo aprobetxatzeko modukoak badira, edo xedearen izaerak hala eskatzen badu, zilegi izanen da halako bakoitzaren banakako kontratazioa aurreikustea, prozedura beraren barrenean sortak antolatuz, betiere bakoitzak unitate funtzional bakarra osatzen badu”.

Hamazazpi. 39.3. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“3. Kontratu baten xedea ezin izanen da zatikatu haren zenbatekoa murrizteko eta, halatan, publizitate baldintzak edo jarraitu beharreko adjudikazio prozedura saihesteko”.

Hemezortzi. 41.2. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“2. Sortakako banaketa egiten denean, sorta edo prestazio bereizi bakoitzaren adjudikazioari aplikatu behar zaizkion prozedura- eta publizitate-arauak multzoaren balio metatuaren arabera zehaztuko dira, salbu eta 7. artikuluan aurreikusitako salbuespenen bat gertatzen denean”.

Hogei. 41.4.b) artikuluko azken paragrafoa kentzen da.

Hogeita bat. 43.3. artikuluari paragrafo berri bat eranstean zaio. Testu hau izanen du:

“Gutzizko zenbatekoa lizitazio-unean zehaztasunez finkatuta egon gabe prezio unitariotan egiten diren kontratuaren, lizitazioaren zenbatekoa emaitza gisa lortuko da gehieneko unitate-preziora biderkatuz kontratuaren hasierako aldirako kalkulaturiko unitate-kopuruarekin, bazter utzirik aldaketak, aukerak eta luzapenak. Kasu honetan, adjudikazio-zenbatekotzat joko da emaitza gisa lorturikoa, eskainitako unitate-preziora biderkatuz aurreikusitako kontsumo-unitateen kopuruarekin, kopuru hori kalkulaturik kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatzearren, bazter utzirik kontratuaren balizko luzapenak eta aldaketa edo aukerak”.

Hogeita bi. 44.1. artikuluari apartatu berri bat gehitzen zaio. Testu hau izanen du:

“ñ) Adjudikazio-hartzaileak kontratuaren xede diren prestazioei dagozkien jarduerak, lanbideek eta/edo profesioek dituzten printzipioak, arauak eta kanon etikoak beteko ditu, une oro inpartzialtasunez, fede onez eta bere profesio edo gremioaren kode deontologikoaren arabera jardunez. Kontratu-prozeduraren edozein fasetan ezaguturiko informazio konfidentziala ez du erabiliko edonolako abantaila edo onura bat zuzenean nahiz zeharka lortzeko, ez bere interes propioan ez eta hirugarren pertsonenean. Bereizki zainduko du pleguetan exekuzio-baldintza berezi gisa sartuak izan diren gizarte- edo ingurumen-klausulak behar bezala betetzen direla, eta kontratua beteko du konprometiturik bere lana lagungarri izatea interes orokorrari erantzuteko, eta kontratu-aldaketa eragitea ekidinez, aldaketa hori lege aurreikusitako kasuetan baizik ezin baita egin”.

Hogeita hiru. 44.2. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“Zilegi izanen da kontratuan estipulazio gehigarriak jasotzea, pleguetan edo adjudikazio-hartzailearen eskaintzan bildutakoez gain, baldin eta bi alderdiak ados egon eta estipulazio horiek ez badute adjudikazio-hartzailearentzako eskubide gehigarriak ezartzen, ez eta kontratuaren baldintzak halako moduan aldatzen ere non, gainerako interesdunek ezagutuak izanez gero, haiek eginko eskaintzaren edo haiek prozeduran izandako interesaren aldaketa eragin ahalko baitzuten. Baldintza horiek ez badira betetzen, erabat deuseztat eta jarri gabekotzat joko da klausula, kontratistarentzako inolako konpentsazio-eskubiderik gabe”.

Hogeita lau. 45. artikulua 4. apartatua kentzen da.

Hogeita bost. 49.3. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“3. Lizitazioan interesa dutenek Kontratazio Atariaren bidez lortuko dute pleguei buruzko informazio gehigarria eta gainerako dokumentazio osagarria, eskatu eta hiru eguneko epean, salbu eta lizitazioa arautzen duten pleguetan beste epe bat ezartzen bada. Eskaintzak aurkezteko epearen azken 3 egunen barruan eginiko informazio-eskaera batek ez du behartuko epe hori luza-tzera”.

Hogeita sei. 50. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“1. Kontratazio Mahaia kide anitzeko organo independentea da, eta haren kideak kontratazio-organoren mendeko langile izanen dira. Horieta-ko batek zuzenbidean lizentziatua edo graduatua izan beharko du eta idazkaritza-zereginak beteko ditu; halaber egonen dira kasuko arloan eskudun diren langile teknikoak, eta kontrol ekonomikoaren eginkizuna esleituta daukaten langileak. Salbuespen gisa, eta espedientean justifikatu ondoren, administrazio-kanpoko pertsonak mahaikide tekniko izendatzen ahalko dira, kontratuko jardueraren sektorean esperientzia dutenak.

Halaber, teknikari horiek aholkulari izendatzen ahalko dira, eta hizpidearekin baina botorik gabe esku hartzen ahalko dute.

2. Mahaiko kideen hautaketa Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratu beharko da. Hautaketa iraunkorra izan daiteke edo berariazkoa, kontratu bat edo gehiago adjudikatzeko. Kontratazio Mahaia osatzen duten pertsonen administrazio-prozedurari buruzko legedian ezarritako abstentzio- edo errekusazio-kausak aplikatuko zaizkie, eta prozedura bakoitzean espresuki adierazi beharko dute ez dagoela interes finantzario, ekonomiko edo pertsonalekin loturiko kausarik, haien inpartzialtasuna eta independentzia kontratazio-prozeduran kolokan jartzen duenik.

3. Kontratazio Mahaia bere funtzioak bete ahalko ditu dagozkion eginkizunak mahaikideen artean banatuz, haien espezializazio teknikoaren eta ezagutzen arabera, halako moduz non eginkizunak betetzeko ez baita beharrezkoa izanen Mahaia osatzen duten pertsona guztien edo batzuen elkarretaratze fisiko edo telematikoa. Mahaiburuaren funtzioa izanen da mahaikide bati edo batzuei eginkizunak esleitzea, horiei guztiei jakinarazirik erabaki hori.

4. Mahaikide batek edo batzuek beren kasa eginiko jarduketa guztiak mahaikide-multzo guztia- ren irizpenari aurkeztuko zaizkio, eta haiek onepena eman beharko diete, guztiei batera nahiz segidan. Kontratazio Mahaia osatzen duten pertsonen bermatu egiten zaie beren iritzia emateko eskubidea, gehiengoarenaren aurkakoa denean, eta aurkako iritzi hori modu arrazoituan aktan jasoa izatekoa, eta, halaber, Mahaiburuari eskatzekoa bilera presentzial nahiz telematikorako deialdia egin dezan, non kide anitzeko organoen dagozkien parte-hartze erregelak aplikatuko baitira, kasuan kasuko aferak tratatzeko.

5. Kontratu publikoak adjudikatzeko kontratazio mahai bat osatu beharko da 60.000 euro baino gehiagoko balio zenbatetsia dutenean, zerbitzu eta hornidura kontratuen kasuan, eta 200.000 euro baino gehiagoko dutenean, obra kontratuen kasuan.

Emakida kontratuak adjudikatzeko, beti nahitaezkoa izanen da kontratazio mahai bat eratzea.

En los contratos de valor estimado superior a 10.000.000 euros, IVA excluido, formará parte de la Mesa de Contratación, además, una persona representante de la Junta Contratación Pública de Navarra designada por ésta, a solicitud del órgano de contratación”.

Hogeita zazpi. 51. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

Son funciones de la Mesa de Contratación, o en su caso, de la unidad gestora del contrato:

a) La calificación de la documentación acreditativa de la personalidad y, en su caso, de la representación, así como de la documentación relativa a las causas de exclusión para contratar.

b) Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa nahiz gaitasun tekniko edo profesionala balioestea.

c) Hautagaitza aurkeztu duten parte-hartzaileak onartu eta, kasua bada, aukeratzea, horrela aurreikusten den prozeduretan, eta eskaintza aurkezteko gonbidapena egitea.

d) Eskaintza teknikoaren balorazioa.

e) La apertura de las ofertas y la resolución de cuantas incidencias ocurran en relación con la información presentada.

f) La valoración de la presunción de existencia de una oferta anormalmente baja, y su aceptación o exclusión previa tramitación del procedimiento establecido en esta ley foral.

g) La solicitud a la persona a cuyo favor vaya a recaer la propuesta de adjudicación de la documentación necesaria de acuerdo con el pliego.

h) Kontratua adjudikatzeko proposamena egitea kontratazio organoari.

i) Proposamenak kalifikatu eta baloratzeko behar diren eginkizun guztiak, bai eta adjudikaziorako proposamena egiteko behar direnak eta legetan ematen zaizkion gainerakoak ere.

1. Cuando la Mesa de Contratación o, en su caso, la unidad gestora aprecien defectos subsanables en la documentación acreditativa de la personalidad, la capacidad o la solvencia, u oscuridades en el contenido de la oferta, que sean susceptibles de aclararse sin afectar a los principios de igualdad y transparencia, dará a la persona afectada un plazo mínimo de 5 días para que los corrija, advirtiéndole de que en caso contrario se procederá a su inadmisión.

2. La Mesa de Contratación o, en su caso, la unidad gestora podrán solicitar, antes de formular su propuesta, cuantos informes considere precisos y se relacionen con el objeto del contrato.

Hogeita zortzi. 53.1. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“1. Las proposiciones, que comprenden tanto la oferta técnica, si la hubiera, como la oferta económica, deberán ajustarse a los pliegos que rigen la licitación, y su presentación supone su aceptación incondicionada sin salvedad o reserva alguna”.

Hogeita bederatz. 53.2. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“Las proposiciones serán secretas hasta el momento de su apertura, sin perjuicio de la información que debe facilitarse a los participantes en una subasta electrónica, en una negociación, o en un diálogo competitivo”.

Hogeita hamar. 55.1. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“1. Proposamenei erantzukizunpeko adierazpen bat erantsi beharko zaie, lizitatuzaileak sinatua. Adierazpen horren edukia ez da isilekoa izanen, eta balio-irizkiak aplikatuz balioetsiriko dokumentazioari erantsiko zaio, halakorik egonez gero, edo formula-aplikazioaren bitartez balioestekoa den eskaintza osatzen duen dokumentazioarik baldin eta adjudikazio-irizpide guztiak mota horretakoak badira. Adierazpenean lizitatuzaileari buruz zehaztu beharko da:

a) Gaitasun juridikoari eta jarduteko gaitasunari dagozkien baldintzak betetzen dituela eta, hala bada, sinatzaileak behar den ordezkari izaera baduela.

b) Kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionalaren arloko baldintzak betetzen dituela.

c) Kontratatzeko debeku egoeran ez dagoela. Adierazpen horretan halaber esanen da indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzarekikoaren betetzea egunean duela.

d) Kontratuaren xede diren prestazioak exekutatze gainerako lege baldintzak betetzen dituela, bai eta kontratazio pleguetan ezarritakoak ere.

e) Espainiako edozein ordenatuko epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen dela gorabehera guztietarako, legokiokoen jurisdikzio-foruari uko eginik, atzerriko enpresen kasuan.

f) Beste entitate batzuen idatzizko konpromisoa daukala bitartekoak atxikitzeaz edo baliabideak erabiltzeaz, hala denean”.

Hogeita hamaika. 55. artikuluari apartatu berri bat gehitzen zaio, testu honekin:

“9. Salbuespenez, eta justifikazio-txostenean zehaztuta egon beharko diren arrazoiengatik, zilegi izanen da interesdun guztiei eskatzea artikuluhonon 1. apartatuan jasotako zertzeladetatik edozein froga dezatela, eskaintzak balioesteari ekin baino lehenagoko urrats gisa, edo lizitatuzaileetako edozeini, prozeduran zehar. Kasu horretan, erabakia hartzea Kontratazio Mahaiari dagokio edo, kasua bada, unitate kudeatzaileari, eta arrazoiak idatziz adierazi beharko dira”.

Hogeita hamabi. 59.2. artikuluko e) apartatua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“e) Adjudikazio-hartzaile izateko proposatua izanen den pertsonak kontrataziorako baldintzak egiazki betetzen dituela frogatzeko aurkeztu beharko duen dokumentazioa”.

Hogeita hamahiru. 70.3. artikuluari bi apartatu berri gehitzen zaizkio, testu honekin:

«d) Prezioan atxikipena eginez, pleguak hori espresuki ezartzen badu. Kasu horretan, pleguak adieraziko du ea atxikipena osoki aplikatuko den lehen eta ondorengo ordainketetan, beharrezkoa den kopururaino iritsi arte, edo faktura guztietan aldizkako atxikipena proportzionalki eginez.

e) Aurrekoen konbinazio baten bidez, pleguak ezartzen dituen baldintzetan”.

Hogeita hamalau. 75. artikuluari 4. apartatua gehitzen zaio, testu honekin:

“4. Espedientearen izaeragatik beragatik edo, salbuespenez, espedientearen inguruabarrengatik, lehia posible ez den kasuetan, ezintasun horren arrazoiak justifikazio-txostenean adieraziko dira, zeinak agertuko baititu erantzun nahi zaien premien izaera eta hedadura, horiek asetzeari nola doitzen zaien xedea, eta adjudikazio-hartzailea kontratatzeko hautaturiko prozeduraren justifikazio xehaketa.

Kasu horietan, eskaintza jasotzeko ez da beharrezkoa izanen kontratazio-mahaiaren parte-hartzea, ez eta Nafarroako Lizitazio Elektronikoaren Plataforma erabiltzea ere. Espediente jaso beharrekoak dira kontratua exekutatzen baldintzak eta adjudikazio-hartzaileak idatziz adierazitako onarpena. Zilegi izanen da egintza bakarrean espediente eta gastua onetsi eta kontratua adjudikatzea”.

Hogeita hamazazpi. 81. artikuluari 3. apartatu berri bat gehitzen zaio, testu honekin:

“3. Horniduren eta segidako zerbitzu-emateen kasuan, prozedura honen erabilera posible izanen da, bakarrik, baldin balio zenbatetsia, hurrengo 48 hilabeteetarako aurreikusitako gastua aintzat harturik, ez bada handiagoa artikulua honen lehen puntuari adierazitako kantitatea baino”.

Hogeita hemezortzi. 88.2.d) artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

«d) Adjudikatu gabe utzitako kontratuak eta deuseztaturiko lizitazio eta adjudikazioak, emaitza horietara eraman duten arrazoiak adierazita”.

Hogeita hemeretzi. 89.1. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“1. Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu beharko da, Europar Batasunak ezarritako prozedura eta eredu ofizialei jarraituz, kontratu bat, esparru-akordio bat edo erosketasistema dinamiko bat egiteko, baldin eta haren balio zenbatetsiak ondoko gutxienekoak adinakoa edo horiek baino gehiagokoak badira:

a) 214.000 euro hornidura- eta zerbitzu-kontratuetan, salbu eta apartatu honen c) letrakotan.

b) 5.350.000 euro obra-kontratuetan, herri-lanen emakidakoetan eta zerbitzu-emakidakoetan.

c) 750.000 euro foru lege honetako 37. artikuluan aipatzen diren gizarte zerbitzuen kontratuetan”.

Berrogei. 95.2. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“2. Kontratu publikoek adjudikatuak izateko beharrezkoa duten prozedura ez baldin bada zenbaterako txikiko kontratuen araubide bereziko edo beren izaeragatik lizitatzailerik bakar bat egon daitekeeneko foru lege honen 75.1. artikuluko kasuetan, horien lizitazioa Nafarroako Lizitazio Elektronikoaren Plataformaren bidez eginen da”.

Berrogeita bat. 95.3. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“3. Nafarroako lizitazio elektronikoaren plataforman aurkeztuko da abian diren lizitazioei dagokien dokumentazio guztia, dokumentazioa ireki arteko konfidentialtasun-bermearekin; horrez gain, kontratuaren unitate kudeatzailearekin edo, kasua bada, Kontratazio Mahaiarekin kontaktatuko da, prozedura barnean eskatutako eskaintza-zuzenketak egin edo eskaintzari buruzko argibideak emate aldera, eta eskaintzak irekiko dira, prozedurak horretara behartzen duenean. Kontratazio publikoko ondorio guztietarako, foru lege honen aplikaziopean dauden entitate guztien egoitza elektroniko eta erregistro laguntzaile bezala tankeratuko da”.

Berrogeita bi. 96. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“Eskaintzak aurkezteko epea amaituta, proposamenak irekiko dira, eta egiaztatuko da ea aurkeztu ote den prozeduran lizitatu dutenek parte-hartze baldintzak betetzearen adierazpena, pleguan ezarritakoari jarraikiz.

Baldin eta, salbuespen gisa, eskatu bada aurretiaz frogatu daitezela kontratatzen baldintzak, edo nortasuna, gaitasuna, kaudimen ekonomiko eta finantzario eta tekniko edo profesionala frogatzeko dokumentazioan zerbait falta bada edo zalantzarik sortzen badu, ukitutako pertsonari eskatuko zaio aurkeztu dituen ziurtagiri eta agiriak osatu edo zuzentzeko. Horretarako, bost eguneko epea emanen zaio gutxienez.

Baldin eta, zuzenketa-epea iraganik, eskatutako informazioa osatu ez bada, lizitatzailerik prozeduratik kanpo utziko da, eta agiri bidez jasoko da horren berri. Kanporatze horrek arrazoitua behar du izan eta, interesdunari jakinarazten bazaio, gutxienez jasoko ditu hautagaitza edo eskaintza bat errefusatu izanaren arrazoiak, eta bidezko diren aurkaratze-bitartekoak eta -epeak”.

Berrogeita hiru. 97. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“Lizitatuzaileak hautatzeko izapidea duten prozeduretan, izapide hori beste edozein jarduketa baino lehenago eginen da, pleguetan ezarritako irizpideei jarraikiz. Horretarako, hautatze-faserako dokumentazioa proposamenetik bereizita aurkeztu beharko da. Hurrenkera hori Nafarroako Lizitazio Elektronikoaren Plataforman frogatuta geratu beharko da.

Eskaintza teknikoak osoki nahiz partzialki balio-ireitziak aplikaturik balioetsia izateko denean, bereiz aurkeztuko dira irizpide horietarako den eskaintza-dokumentazioa eta formulen bitartez zenbatestekoak diren irizpideetarako.

Balio-iritzien aplikazioari loturiko irizpideen ebaluazioa barne ekitaldi batean eginen da; bertan, teknikoki desegokiak diren eskaintzak edo kontratuaren behar bezalako exekuzioa modu egokian bermatzen ez dutenak bazter uzten ahalko dira. Horren guztiaren berri agiri bidez jaso beharko da.

Nolanahi ere, formula bidez zenbatestekoak diren irizpideetarako dokumentazioa irekiko da balio-iritzien aplikazioari loturiko irizpideetarako dokumentazioa ireki eta balioetsi ondoren.

Hurrenkera hori Nafarroako Lizitazio Elektronikoaren Plataforman frogatuta geratu beharko da.

Baldin eta Kontratazio Mahaiaren iritziz edo, kasua bada, unitate kudeatzailearen iritziz, aurkeztutako eskaintzaren bat iluna edo zehaztugabea bada, argibide osagarriak eskatu ahal izanen ditu, betiere lizitatuzaileen arteko tratu berdintasunaren printzipioa errespetatuz. Lizitatuzaileek ezin izanen dute aurkeztutako eskaintza aldatu. Eranztutako epea gutxienez bost eguneko eta gehienez hamar eguneko izanen da”.

Berrogeita lau. 98.1. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“1. Pleguan ezarriko dira eskaintza bat, lizitazio prezioaren edo aurkeztutako gainerako eskaintzen erreferentzia hartuta, baxuegitzat hartzeko baldintzak, prestazioaren xedea eta merkatuko baldintzak kontuan hartuta.

Aurkezturiko eskaintza baxuegi batek pentsarazten duenean ez dela erregulari beteko, eskaintza errefusatu baino lehen horren berri emanen zaio kasuko pertsonari, egoki deritzon justifikazioa aurkez dezan bost eguneko epean.

Lizitatuzaileari zuzendutako informazio-eskaera argiro adierazi beharko da, halako moduan non eskaintzaren bideragarritasuna guztiz eta behar

bezala justifikatzeko moduan egonen baita, eskaintzaren baxuegitasuna zein parametrotan oinarriturik definitu den zehazturik”.

Berrogeita bost. 98.3. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“3. Kontratazio-mahaiak edo, kasua bada, unitate kudeatzaileak lizitatuzaileak emandako informazioa ebaluatuko du, eta eskaintza atzera botatzen ahalko du soilik aurkeztutako agiriek ez badute modu egokian justifikatzen proposatutako prezioa edo kostuak.

Prozeduran beharrezkoa izanen da aholkularitza teknikoak eskatzea, justifikazioan jasotako zertzeladak balioesteko egokitzen jotzen den jakintza daukaten pertsonena”.

Berrogeita sei. 98.4. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“4. Edonola ere, eskaintzak baztertuko dira egiaztatzen bada baxuegiak direla azpikontratazioari buruzko araudia urratzen dutelako edota ez dituztelako betetzen ingurumen, gizarte edo lan arloetan aplikatzekoak diren betebeharrak, nazionalak edo nazioartekoak, indarreko hitzarmen kolektibo sektorialen ez-betetzea barne, foru lege honetan ezarritakoari jarraikiz”.

Berrogeita zazpi. 100.1. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“1. Kontratazio organoak hilabeteko gehieneko epean adjudikatuko du kontratua eskaintza ekonomikoa irekitzeko ekitalditik hasita, non ez den beste epe bat ezarri agirietan.

Epe horietan adjudikazioa ematen ez bada, lizitazioan parte hartzeko onartutako enpresek beren proposamenak bertan behera uzten ahalko dituzte inolako zigorrik jaso gabe.

Baldin lizitatuzaile diren enpresek eskaintza ekonomikoak irekitzen direnetik hilabete bat igaro baino lehen erretiratu egiten badute beren eskaintza, lizitazio-zenbatekoaren %2ko zigorra jarriko zaie, behin-behineko bermearen kargura kobratuko dena, halakorik badago, edo berariazko ordainketa-gutuna jaulkiz”.

Berrogeita zortzi. 101.2. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“2. Adjudikazioaren eraginkortasuna arau hau jarraikiz geldituko da etenda:

a) Hamar egun naturaleko epean zehar, adjudikazioaren jakinarazpenaren igorpen-egunetik kontatzen hasita, baldin eta igorpen hori bitarteko elektronikoaren bidez egiten bada.

b) Hamabost egun naturaleko epean zehar, adjudikazioaren jakinarazpenaren igorpen-egunetik kontatzen hasita, baldin eta igorpen hori bitarteko ez-elektronikoen bidez egiten bada.

Horretarako, adjudikazio-jakinarazpenaren igorpena zer egunetan eta zer bidetatik egin zen azaltzen duen froga bat egon beharko da.

Prozeduran interesdun diren pertsona guztiak esanbidezko adierazpen bat egiten badute, non Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiari erreklamazioa aurkezteari uko egiten diotela baieztatzen duten, etenaldia garaiz aurretik amaituko da, eta prozedurak aurrera jarraitu ahaliko du.

Halaber, eskaintza bakarra aurkeztu den lizitazio-deialdidun prozeduretan, ez da apartatu honek aipaturiko etenaldia aplikatuko, eta zilegi izanen da prozeduraren izapidetzeak aurrera segitzea”.

Berrogeita bederatzia. 101.3. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“Adjudikazio-egintza eten eginen da kontratazio publikoaren arloko erreklamazio bat aurkezte hutsagatik, harik eta erreklamazio hori ebatzi arte edo ebazteko legezko epea igaro den arte”.

Berrogeita hamar. 102.1. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“1. Kontratu-adjudikazioak, salbu eta zenbateko txikiko kontratuak adjudikatzeko araubide bereziaren bidez egiten direnak, Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratuko dira, bost eguneko epean, kontratu-adjudikazioaren eraginkortasunaren etenaldia amaitzen denetik hasita bost eguneko epean. Lizitazio-iragarkirik argitaratu ez deneko kontratu-adjudikaziorako iragarkietan horretarako justifikazioa ematen duen azalpen labur bat erantsiko da, egitatezko inguruabarrak eta zuzenbideoinarriak aipatzen dituena”.

Berrogeita hamaika. 101.6. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“6. Kontratuak agiri administratiboan formalizatuko dira bost egun naturaleko epean, adjudikazio-etenaldia amaitzen denetik zenbatuta, salbu eta pleguak epe luzeagoa aipatzen badu. Agiri administratiboan formalizatutako kontratuak edozein erregistro publikotan sarrera izateko bezainbesteko titulu izanen dira”.

Berrogeita hamabi. 102.4. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“4. Kontratazio-organismoek idatzizko txosten bat prestatuko dute obra-, hornidura- edo zerbitzu-kontratu edo esparru-akordio bakoitzari buruz, bai

eta erosketa-sistema dinamiko bat ezartzen duten bakoitzean ere.

Foru lege honen 88. artikuluan aipaturiko iragarkiak argitaratzea, ezarritako epeetan eta formalitateekin, nahikoa izanen da apartatu honen lehen paragrafoak aipatzen duen txostena prestatzeko betebeharra betetzat jotzeko, baldin eta gutxienez ere honako informazio hau biltzen badute:

a) Adjudikazio-boterearen izena eta helbidea, eta kontratuaren, esparru-akordioaren edo erosketa-sistema dinamikoaren xedea eta prezioa.

b) Kasua bada, hautaketa kualitatiboaren edo eskaintzen eta soluzioen kopuruaren murriztapenaren emaitzak, foru lege honek prozedura murrizturako, negoziatuzko lizitazioenerako, lehia-elkarrizketarenerako eta berrikuntzarako elkartzearenerako ezartzen duenari jarraikiz. Zehazki:

1. Hautaturiko hautagaien edo lizitatuzaileen izenak eta haien hautaketa justifikatzen duten arrazoiak.

2. Bazter utzitako hautagaien edo lizitatuzaileen izenak eta haien bazterketa justifikatzen duten arrazoiak.

c) Baxuegitzat jotako eskaintzak baztertu izanaren arrazoiak.

d) Adjudikazioi-hartzailearen izena eta haren eskaintza onartu izanaren arrazoiak; bai eta, eza-guna baldin bada, adjudikazio-hartzaileak hirugarrenekin azpikontratatzeko asmoa duen kontratu-partea edo esparru-akordioaren parte; eta, baldin badaude eta une horretan ezagunak baldin badira, kontratista nagusiaren azpikontratisten izenak.

e) Negoziatuzko lizitazioko prozeduretarako eta lehia-elkarrizketako prozeduretarako, zer inguruabarrek justifikatzen duten prozedura horiek erabiltzea.

f) Aurretiazko argitarapenik gabeko prozedura negoziatuei dagokienez, zer inguruabarrek justifikatzen duten prozedura hori erabiltzea.

g) Kasua bada, adjudikazio-botereak zer arrazoiengatik erabaki duen kontratu edo esparru-akordio bat ez adjudikatzea edo egitea, edo uko egin dion erosketa-sistema dinamiko bat ezartzeari.

h) Kasua bada, zer arrazoiengatik erabili diren elektronikoez bestelako komunikabideak eskaintzen aurkezpen elektronikorako.

i) Kasua bada, detektaturiko interes-gatazkek eta horiei dagokienez harturiko neurriak.

j) Kasua bada, enpresek kontratuko dokumentuak prestatze aldera aurretiaz izandako parte-hartzean zer neurri hartu diren”.

Berrogeita hamahiru. 108. bis artikulua berria gehitzen da. Testu hau izanen du:

108. bis artikulua. Kontratu-betetzeari buruzko ebaluazio-txostena.

“Kontratua amaitzen denean, unitate kudeatzaileak txosten bat eginen du ofizioz, kontratuaren betetze egokiari buruzkoa, eta txosten hori Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratuko du. Kontratista nagusiarentzat jaulkitzen diren betetze egokiari buruzko txostenek aipatuko dituzte kontratuaren betetzealdian zehar egondako lagatze- eta azpikontratatzeko-portzentajeak, eta gero batean izanen diren lizitazioetan kaudimena frogatzeko balioko dute, kontratazio-organismoari berriazko ziurtagiria eskatzeko beharrik gabe frogatu ere.

txosten hori ez argitaratzeak aditzera emanen du kontratazio-organismoa goganbehartsu dela kontratu-betetze egokiari buruz.

Betebehar hori ez da egonen munta txikiko gastuetarako prozedura bereziaren bidez adjudikaturiko kontratuetan”.

Berrogeita hamalau. 116.1.b) artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“b) Kontratatik kaudimen ekonomiko eta finantzario, tekniko edo profesionalik ez izatea”.

Berrogeita hamabost. 116.2.b) artikulua kentzen da.

Berrogeita hamasei. 125.1. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“1. Kontratu publiko baten lizitazioan eta adjudikazioan interesa dutenek Nafarroako Kontratu Publikoaren Administrazio Auzitegiari eskatu ahal izanen diote, aurreko artikuluan ezarritako epeetan, alegatutako arau-haustea zuzentzeko edo ukitutako interesei kalte gehiago ez eragiteko kautelazko neurriak har daitezela, prozeduraren edo prozedura horretan hartutako edozein erabakiren etetea barne direla, baldin eta aipaturiko kasuetan ez bada gertatzen egintza aurkaratuaren etete automatikoa, foru lege honen 124.4 artikulua aurreikusia”.

Berrogeita hamazazpi. 125.3. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“3. Nafarroako Kontratu Publikoaren Administrazio Auzitegiak kontratuaren administrazio espedientea edo dokumentazioa eskatuko dio ukitutako entitateari. Kontratazio organismoak bi egun

baliioduneko epea izanen du hori aurkeztu eta egokitze jotzen dituen alegazioak egiteko. Epe hori iraganik, eskatutako dokumentazioa aurkeztu zein ez, Nafarroako Kontratu Publikoaren Administrazio Auzitegiak ebazpen arrazoitua emanen du bost egun baliioduneko epean. Epe horretan berriazko ebazpenik jakinarazi ezean, eskaera ezetsi egin dela ulertuko da, non ez den egintzaren bat edo lizitazio prozedura eteteko eskatzen; halakoe-tan, epearen barrenean ebazpenik jakinarazten ez bada, etenduraren eskaera onartu egin dela ulertuko da.

Apartatu honetan xedatutakoak ez du eragoztiko izapidetze-egintzen, adjudikazio-egintzaren, esparru-akordio baten edo ente instrumental bati egindako enkarguaren etete automatikoa, egintza horien aurka kontratazio publikoaren arloko erreklamazio berezi bat aurkeztzen denean”.

Berrogeita hemezortzi. 126.1. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“1. Erreklamazioa telematikoki aurkeztuko da, Nafarroako Kontratazioaren Atarian, Nafarroako Kontratu Publikoaren Administrazio Auzitegiari zuzendua, erregelamenduz zehazten diren baldintzak betez, foru lege honetan ezarritako epeetan.

Interesdunak kontratazio-espeditentea erreklamazioa aurkeztu aurretik nahi badu aztertu, horretarako eskaera egin beharko dio kontratazio-organismoari, zeina behartuta egonen baita erakustera, ezertan eragotzi gabe foru lege honen 54.1 artikuluan aurreikusitako konfidentialtasun-mugak.

Espedienterako irispidea izateko eskaera erreklamazio berezia aurkezteko epearen barrenean egin beharko da, eta kontratazio-organismoa behartuta egonen da irispide hori ematera eskaera jaso ondoko hiru egun baliioduneko epean.

Lehenago xedatua kontratazio-organismoak ez badu betetzen, interesdunak ez dira salbuetsita geratuko erreklamazio berezia foru lege honek ezarritako epean aurkezteko daukaten betebeharririk. Dena den, erreklamaziotegileak zilegi izanen du bere erreklamazioan ez-betetze hori alegatzea. Auzitegiak zilegi izanen du, ikusirik erreklamaziotegileak eta kontratazio-organismoak alegaturikoa eta aintzat harturik kasuko inguruabarrak, erreklamaziotegileari hiru egun baliioduneko irispidea ematea kontratazio-organismoak eskueran ipinitako kontratazio-espeditentarako, erreklamazioa osatzeko alegazioak aurkeztu aurretik. Kasu horretan, kontratazio-organismoak halaber zilegi izanen du bi egun baliioduneko epean alegazio berriak aurkezte”.

Berrogeita hemezortzi bis apartatu berria. 138. artikulua aldatu eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“138. artikulua. Izapidetze arrunteko kontratazio espedientea.

1. Edozein kontratu egin aurretik, munta txikikoen kasuan izan ezik, kontratazio-espeditente bat izapidetu beharko da, osatuta egonen dena, foru lege honetan aurreikusitako salbuespenak salbuespen, 3. apartatuan aipatzen diren dokumentuekin. Espediente horretan justifikatuko da kontratuaren xede diren prestazioak zergatik diren beharrezkoak edo komenigarriak helburu publikoak betetzeko.

2. Kontratuak prestatuko dira beren xedearen arabera eskudun den unitatearen kontrolaren eta erantzukizunaren pean. Unitate horri, foru lege honen ondorioetarako, kontratua kudeatzen duen unitatea deituko zaio.

3. Kontratazio espeditentea kontratuaren unitate kudeatzaileak egindako txosten arrazoitu baten bidez hasiko da, zeinean azalduko baitira ase nahi diren beharren izaera eta neurria, xedearen egokitasuna beharrak asetzeko, kontratuaren xede diren prestazioen ezaugarriak eta balio zenbatesia, prezioa merkatuarekin bat datorren, kontratazioarako prozeduraren hautaketa eta, kasua bada, kaudimen irizpideak, adjudikazio irizpideak, eta kontratuaren xedearekin duten lotura, bai eta ondasun edo zerbitzuen hartzaile diren pertsonen beharrezkoak eta haien inguruabarrak ere, eta beharrezkotzat jotzen diren beste guztiak. Kontratazio-espeditenteak honakoak ere jasoko ditu, beharri buruzko txostenaz gain:

a) Kontratazioaren plegu arau-emaileak.

b) Kreditu-erreserbaren dokumentua, prozedura erraztuan eta lizitazio deialdirik gabeko prozedura negoziatuan.

c) txosten juridikoa.

d) Kontu-hartzailearen fiskalizazioa.

4. Kontrata prestatzeko fasea buruturik, salbu eta prozedura erraztuan eta lizitazio-deialdirik gabeko prozedura negoziatuan, kontratazio organoak ebazpen arrazoitua emanen du espeditentea onesteko eta adjudikazio prozedurari hasiera ematea xedatzeko. Ebazpen horretan gasturako baimena ere jasoko da.

5. Jatorri desberdinetako ekarpenekin finantzatuko diren kontratuei dagokienez, espeditentean egiaztatu beharko dira horien guztien eskuragarritasuna eta horien ordainketaren ordena”.

Berrogeita hemeretzi. 139.2. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“2. Kontratu bakar gisa adjudikatzen ahalko dira urte anitzeko izaerakoak diren diru-laguntzen menpeko finantzaketa duten kontratuak, prozedura irekiaren nahiz murriztuaren bidez eta aurreikusirik kontratua diru-laguntzen erritmoaren arabera bete dadila”.

Hirurogei. 141.2. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“2. Kontratu-hartzaileak organo kontratazailearen aurrean justifikatu beharko du, hala eskatzen zaion edozein unetan, aplikatzekoa den hitzarmen kolektibo sektorialak ezartzen dituen lan baldintzak betetzen direla, edo beharrezkotzat jotzen den beste edozein zertzelada, nortasunari, gaitasunari, kaudimenari edo kontratua betetzeko moduari buruzkoa”.

Hirurogeita bat. 152.2. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“2. Prezioa ordaintzeko araubidea pleguetan ezarriko da. Era berean, eta ezertan ukatu gabe kasua bada aplikatzea urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 44. artikuluan ezarritakoa (LBK 2015, 1654), pleguan beti aurreikusi beharko da kontratistaren betebeharrak dela subrogazioak ukitutako langileei ordaindu gabe utzitako soldaten erantzule izatea, bai eta sortutako Gizarte Segurantzarako kotizazioena ere, are kontratua suntsitu eta kontratista berriak langileak subrogatzen dituean; betebehar hori ez da inola ere kontratista berriarena izanen. Kasu horretan, behin soldata horiek ordaindu gabe daudela frogatuta egon ondoren, Administrazioak kontratistari zor zaizkion kopuruak atxikiko ditu, soldata horien ordainketa bermatzeko, eta ez du behin betiko bermea itzuliko harik eta soldata horien ordainketa frogatzen den arte”.

Hirurogeita bi. 158.2. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“2. Edozein modutan, kontratua bete dela egiaztatzeko, Administrazioak harrera- edo adostasun-egintza formal eta positibo bat eginen du, kontratuaren xedea burutzen edo entrega egiten denetik kontaktzen hasita hamabost eguneko epean gehienez ere. Hornidura-kontratuaren nahikoa izanen da garraio-agiria sinatzea. Zerbitzuate iraukorreko kontratuaren nahikoa izanen da unitate kudeatzaileak oniritzia ematea fakturan edo behar bestekotzat jotzen den beste dokumentu batean, prestazioa behar bezala bete dela uler-

tzeko. Obra kontratueta eta herri-lanen emakidarako kontratueta, pleguak epe hori luzatzen ahal du obrak amaitu eta hogeita hamar egun gero-ago arte”.

Hirurogeita hiru. 161. bis artikulua berria gehitzen da. Testu hau izanen du:

161. bis artikulua. Kontratu-suntsiarazpeneko prozeduren metaketa eta kontratatze debekuen ezarpena.

“1. Zilegi izanen da kontratistari egoztekoa zaion arrazoiaren ondoriozko kontratu-suntsiarazpeneko prozeduraren izapidetzeari metatzea kontratatze debeku bat ezartzeko prozedurari dagozkion izapideak, debeku hori deduzi daitekeenean kontratistak kontratu-suntsiarazpenaren errua izatetik.

2. Kasu horretan, prozedura hasteari buruzko ebazpenak ohartaraziko du kontratatze debekurako arrazoi bat egotearen usteaz, kontratua azkenean suntsiarazirik gertatzearen kasuari lotuta. Zertzelada hori aipatuta utziko da egin beharrekoak diren kontratistari entzuteko izapideetan, kontratistak modua izan dezan horretaz mintzatzeko. Era berean, prozeduran esku hartu behar duten organoei egin beharrekoak diren txosten-eskaeretan ere utziko da aipatuta.

3. Kontratu-suntsiarazpeneko prozedurari amaiera ematen dion ebazpenak halaber zehaztuko ditu, kasua bada, kontratatze debekuen norainokoa eta iraupena. Baldin eta kontratu-suntsiarazpeneko prozedura aldi berean gauzatzen bada xede bera duen adjudikazio-prozedura berri baten lizitazioarekin, bigarren horren adjudikazioa baldintzatuta egonen da lehena aurretiaz ebazteari, eta adjudikazio berriaren efektua izanen du aurretiazko suntsiarazpen-prozeduran deklaraturiko kontratatze debekuak”.

Hirurogeita hiru bis apartatu berria. 229.1. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“Baldin eta proiektuan aurreikusitako obraren exekuzio-aurrekontuan %20 baino gehiagoko desbideraketa gertatzen bada haren kostu errealketarako, proiektuaren egileari egozten ahal zaizkion oker edo omisioen ondorioz, zilegi izanen da pleguan kalte-ordain sistema bat ezartzea, halakoa non proiektua egiteko kontratuaren prezioa jaitsi egingen baita desbideraketa-portzentajearen arabera, gehienez ere haren ehuneko 30eraino”.

Hirurogeita lau. Hamargarren xedapen gehigarria aldatzen da. Hona testu berria:

“Hamargarren xedapen gehigarria. Irakaskuntza-, dibulgazio- eta arte-jarduerekin zerikusia duten kontratueta araubide berezia.

Kontratuaren xedea pertsona fisikoei adjudikatutako irakaskuntza- edo prestakuntza-jardueraren bat denean, gauzatua Administrazioaren zerbitzuko langileentzako prestakuntza- nahiz hobekuntza-ikastaroetan edo enplegurako prestakuntzako zentro publikoetan emandako prestakuntza-ekintzetan, bai eta mintegi, solasaldi, mahai-inguru edo hitzaldietan, kolaborazioetan, zientzi artikuluetan edo idatzizko materialen prestatetan, eta espezialitate artistikoaren arabera adjudikatzeak diren kontratueta, hala nola zuzendaritza artistikoak, komisariotzak eta antzeko jarduerak, izapide hauek baizik ez dira egin behar, aplikatzeko den aurrekontu arloko legeriarekin bat: organo eskudunak eginiko hautaketa edo izendapena, eta kasuan kasuko fakturaren aurkezpena”.

Hirurogeita bost. Xedapen gehigarri bat, hogeita batgarrena, gehitzen da. Testu hau izanen du:

“Hogeita batgarren xedapen gehigarria. Medikamentu-erosketa publikoari aplikatzeko zaion araubidea.

1. Osasun Sistema Nazionalerako finkaturiko laborategi-salneurriak dituzten medikamentuak, jadanik erakunde publiko batekiko negoziazioa eta prezio-finkatze administratiboa egon izanez gero, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak zuzenean erosten ahalko ditu, lizitazio beharrik gabe.

2. Patente-babesa daukaten medikamentuak, Medikamentuen Prezioetarako Ministerioarteko Batzordeak prezio publiko zehaztu ondoren, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak zuzenean erosten ahalko ditu, gehieneko erreferentziatza harturik Osasun Ministerioak finkaturiko prezioa.

3. Medikamentu generikoen, bioantzekoen eta medikamentu originalen erosketetan, farmaziaz zerbitzuek zilegi izanen dute medikamentu horietako edozein aukeratzea, kudeaketa efizienteari dagozkion irizpideak aintzat harturik, medikamentu-erosketarako eskudun den organoak aurretiaz ezarri dituen nahitaezko baldintzak onartzen dituzten hornitzaileek eskainitako artetik. Hornitzaile batekin edo batzuekin medikamentu-erosketa publikorako akordio bat sinatzeak ez du eragoztiko gero beste akordio batzuk sina daitezela ezarritako baldintzak onartzen dituzten hornitzaile berriekin.

4. Aurreko puntuan adierazitakoa gorabehera, komenigarriagoztat jo ezker aipaturiko hornitzaile edo medikamentuetatik bakarrarekin lan egitea, zilegi izanen da haietako bakarra hautatzea medikamentu-eskarien xede izateko, hartara prozedura bat eginez, zeinean ezarriko baitira hautaketarako aintzat hartuko diren hauta-irizpide kualitatiboak, bai eta haien haztapena ere. Parte-hartzea eman beharko zaie balizko hornitzaile guztiei, eta hamar eguneko gutxieneko epea ezarriko da, Interneteko argitalpenetik edo gonbidapen-bidalketatik aurrera zenbatzekoa, beren eskaintzak aurkez ditzaten. Unitate arduradunak prozeduraren emaitza jakinarazi eta Interneten argitaratuko du, arrazoiak agertuta. Hornitzailea edo medikamentua bakarra duten medikamentu-erosketa publikorako akordio horien epea ez da urtebete baino gehiagokoa izanen, salbu eta urteko zenbatekoa ez denean 100.000 euro baino gehiagokoa, ezen kasu horretan urtebete gehiago luzatzen ahalko da, alderdiak aurretiaz elkarrekin ados jarrita.

5. Medikamentu-erosketa publikorako edozein motatako akordioak izaeraz pribatu izanen dira, baina haiek izapidetzean honako hauek bete beharko dira:

a) Beharrianaren eta kreditua egotearen justifikazioa.

b) Hornitzaileek bete beharreko baldintzen zehaztapena, esanbidez ezarrita zein izanen den ordainketa-sistema eta zein izanen diren epeei, produktuaren kalitateari eta/edo horniduraren kantitateari dagozkien urraketegatik kontratu-zigorak.

c) Enpresari zuzenduriko eskaera formal. Eskaera hori onartzeak esan nahi du akordioaren termino guztiak betetzeko konpromisoa hartzen dela.

6. Medikamentu-erosketa publikorako akordioak segidako traktukoak direnean, zilegi izanen

dute xedapenak txertatzea haien aldaketari eta berriazko suntsiarazpen-arrazoiei buruz”.

Hirurogeita sei. Hogeita bigarren xedapen gehigarria aldatzen da. Testu hau izanen du:

Hogeita bigarren xedapen gehigarria. Administrazio publikoei aplikatzekoak zaizkien arauak, foru lege honetan arauturiko prozedurak direla eta.

1. Foru lege honetan arauturiko prozedurek, lehenik eta behin, foru legean bertan eta haren garapen-arauetan jasotako aginduak izanen dituzte araubide; eta, ordezkio modura, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta haren arau osagarriek jasotzen dituztenak.

2. Betiere, interesdun den pertsona batek eskaturik hasitako prozeduretan, haietarako ez baldin bada berriaz besterik ezartzen, eta xedatzen edo gaitzat badute kopuru-erreklamazioa, administrazio-prerogatiben egikaritzea edo administrazio-kontratu baten exekuzioarekin, betetzearekin nahiz azkentzearekin zerikusia duen beste edozein afera, interesdun den pertsonak zilegi izanen du, prozeduraren ebazpenerako ezarritako epea ebazpen hori jakinarazi gabe igaro denean, bere eskaera administrazio-isiltasunez ezetsizat jotzea, ezertan eragotzi gabe ebazteko betebeharrak bere horretan irautea.

Hirurogeita zazpigarren apartatu berria, testu hau izanen duena:

Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen hamabosgarren xedapen gehigarria indargabetzen da.

Azken xedapen bakarra. Foru legeak indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko zuzemenak egin ditzan Gobernu zentralaren aitzinean, Nafarroako erakundeek esku gera dadin parke eoliko edo fotovoltaikoak paratzeko ekimen guztien gaineko erabakimena.

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egin beharreko zuzemenak egin ditzan Gobernu zentralaren aitzinean, Nafarroako erakundeek esku gera dadin parke eoliko edo fotovoltaikoak paratzeko ekimen guztien gaineko erabakimena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torresek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena

Estatuko egungo legediak mugatu egiten du parke eoliko eta fotovoltaikoak instalatzeari begira Nafarroak duen erabakimena.

Izan ere, kasuko ministerioarena da 50 MW-etik goitiko potentzia duten jarduketa guztien gaineko azken erabakia. Foru erkidegoaren eskumena ingurumen-eraginaren adierazpena mugatzen da (Landa Garapeneko eta Ingurume-

neko Departamentuak egiten du hori), baina ez du erabakimena, organo substantiboa, aurkeztutako proiektuen gaineko azken hitza benetan duena, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa delako.

Geroa Baik uste du erabakimena gure erakundeena izan beharko litzatekeela eta, hartara, aldatu egin beharko litzatekeela parke horiei dagokienez hori eragozten duten lege-esparrua.

Gure luraren eta bertako herritarren interesen defentsa, foru erkidegoaren errealitatearen ezagutza, lurralde osoaren gizarte-kohesioa Europar Batasunak ezarri eta gure erakundeek bere egindako deskarbonizazio-helburuak lortzeko xedez... Horrek guztiak garamatza planteatzera beharrezkoa dela prozedura berbera izatea parke horietan eta 50 MW-etik beheitiko potentzia duten parkeetan, Nafarroako Gobernuko hiru departamenturen parte-hartzearekin: Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak, ingurumen-inpaktuari adierazpena; Lurralde Antolamenduko Departamentuak, iritzia ematea; eta Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak, sostengua. Azken batean, gure erkidegoan bertan egitea analisia, azterlana eta azken erabakia.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egin beharreko zuzemenak egin ditzan Gobernu zentralaren aitzinean, Nafarroako erakundeek esku gera dadin parke eoliko edo fotovoltaikoak paratzeko ekimen guztien gaineko erabakimena, egungo muga (potentzia 50 MW-etik beheitikoa izatea) hautsita.

Iruñean, 2021eko urriaren 7an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

Adierazpen instituzionala, Pobrezia Desagerraraztearen aldeko Nazioarteko Eguna ospatzearen kariatara.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko urriaren 13an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"Nafarroako Parlamentuak:

1. Bat egiten du Pobrezia Desagerraraztearen aldeko Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin. Hartara, heldu den urriaren 14an ekitaldi bat eginen du, Parlamentuko atalondoan, 12:00etan, Gizarte Entitateen Plataformarekin.

2. Berretsi egiten du Pobreziaren eta Desberdinkeraren aurkako Itunean pobreziaren eta desberdinkeraren aurka sinatutako konpromisoa.

3. Itun horren jarraipena egiteko eta ituna betetzeko urratsak egiten jarraitzeko konpromisoa hartzen du.

4. Uste du funtsezkoa dela pandemiatik heldu diren erronka global berriei aurre egitea, desberdinkeriak areagotu egin baitira gure gizartean eta are gehiago herrialde txirotuetan.

5. Olana paratuko du bere fatxadan urriaren 13tik 18ra bitarte, Pobrezia Desagerraraztearen aldeko Nazioarteko Eguna ospatzeko". (10-21/DEC-00062).

Iruñean, 2021eko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, Bularreko Minbiziaren Nazioarteko Eguna ospatzearen kariatara.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko urriaren 13an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"Nafarroako Parlamentuak honako hau erabaki du:

1. Saray elkarteak abian jarritako elkartasun kanpaina babestea eta Nafarroako herritarrei bertan parte har dezaten dei egitea.

2. Parlamentuaren egoitzan ekitaldi instituzional bat egitea heldu den asteartean, urriaren 19an, 12:00etan, SARAY elkartearekin batera.

3. Urriaren 19an arrosa kolorez argizatzea Parlamentuaren egoitzako fatxada". (10-21/DEC-00063).

Iruñean, 2021eko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, Osasunako jokalaria baten aurkako jokabide sexista dela-eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko urriaren 13an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Karolina Sarasuak gertakariak salatzean izandako jokabide ausartaren alde agertu diren ahots guztiekin.

2. Nafarroako Parlamentuak Osasunako jokalariai pairatutako irain eta mehatxuak arbuiatzen ditu.

3. Nafarroako Parlamentuak emakume kirolariari eskertu egin nahi die belaunaldi gazteenei ematen dieten etsenplua, eta kirolean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekiko konpromisoa azpimarratzen du". (10-21/DEC-00064).

Iruñean, 2021eko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, LC Districts proiektuari buruzkoa.*MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak aurkeztutako galdera, LC Districts proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio bigarren lehendakariorde eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariari, Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zertan da LC Districts proiektua eta zer aurreikuspen darabilzue proiektuaren ezarpenari begira?

Iruñean, 2021eko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

Galdera, Osasunari buruzko Foru Lege berriari buruzkoa.*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Osasunari buruzko Foru Lege berriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Osasun Departamentuak ba al dauka, 2015etik 2019ra bitarteko legegintzaldiaren fruitu, Osasunari buruzko Foru Lege berrirako zirriborrorik?

Osasun Departamentuak zer urrats egin ditu gaur arte Osasunari buruzko Foru Lege berriari aurrerabidea egiteko?

Osasunari buruzko Foru Lege berria dela-eta aurrekusitako ekintzen kronograma jaso nahiko nuke.

Iruñean, 2021eko urriaren 5ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, kirurgian batez beste itxaron beharreko denborari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Kkirurgian batez beste itxaron beharreko denborari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Irailaren 23an, Osoko Bilkuran ahozko galdera bati erantzutean, Osasuneko kontseilariak adierazi zuen Nafarroa 12. erkidegoa dela kirurgian batez beste itxaron beharreko denborari dagokionez, eta 7.a, berriz, kontsultetan.

Datu horiek zer iturritatik hartu dira zehatz-mehatz?

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, COVID-19aren pandemiaren bilakaera aztertzeke aginte-koadroen datuei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, COVID-19aren pandemiaren bilakaera aztertzeke aginte-koadroen datuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

duan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Parlamentari naizen honek hilero eskatu izan ditut pandemian zehar COVID-19aren pandemiaren bilakaerari buruz Osasun Departamentuko aginte-koadro guztietan eskuragarri zeuden datu guztien egunean eguneko kopia. Informazio-eskari horiei erantzutean, Osasuneko kontseilari egunean-egunean egindako PCR eta antigenoen testen kopuruari buruzko informazioa eman izan dit soil-soilik.

1.- Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak baieztatzen al du Osasun Departamentuak COVID-19aren pandemiaren bilakaera aztertzeke dauzkan aginte-koadro guztietan dauden datu bakarrak direla PCR eta antigenoen testen kopuruak?

2.- Zer datu monitorizatzen dira zehatz-mehatz Osasun Departamentuak pandemiaren jarraipen, eboluzio eta analisisirako dauzkan aginte-koadro guztietan? Zer iragazki erabiltzen da datu horietako bakoitzean?

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarren Erregelamen-

3.- Osasuneko kontseilariak zergatik ukatzen dio behin eta berriro parlamentari honi COVID-19aren jarraipenerako aginte-koadroen datuei buruzko informazioa?

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Nafarroako txertoen Aholku Batzorde Teknikoari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Nafarroako txertoen Aholku Batzorde Teknikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarraren Erregelamen-

duan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Informazio-eskari bati erantzunez parlamentari honi igorritako informazioaren arabera (10-21/PEI-000716), txertoen Aholku Batzorde Teknikoa abenduaren 14an soilik bildu zen Nafarroan 2020an; 2021ean, berriz, abuztuaren 4an soilik. Harrigarria da COVID-19aren aurkako txertoa jartzeko prozesu bete-betean Nafarroako Gobernuak aholku-emaile tekniko gisa erabili ez izana txertoen Aholku Batzorde Teknikoa, Osasun Ministerioaren informazioa partekatzeko eta Nafarroan erabakiak hartzeko.

Zeintzuk dira Nafarroako txertoen Aholku Batzorde Teknikoaren eginkizunak?

Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak zergatik ez du Nafarroako txertoen Aholku Batzorde Teknikoaren bilerarik deitu COVID-19aren aurkako txertoaldi guztian?

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, aisialdiko eskolen gaineko araudiari buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko galdera, aisialdiko eskolen gaineko araudiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten dio Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilariari, idatziz erantzun diezaion:

Zenbait autonomia erkidegok gazteen prestakuntzarako titulazioei buruzko araudiak gaurkotu dituzte. Nafarroan, indarrean dira oraindik bai 17/2002 Foru Agindua, otsailaren 20koa, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariak emana, Aisialdiko Eskolen onarpen ofizialerako, Gazteekin egiten diren Jardueretarako Nafarroako Eskolarekin (GENE) izanen dituen harremanetarako eta ofizialki onartutako Aisialdiko Eskolen ohiko funtzionamendurako arauak ezartzen dituen, bai 34/2004 Foru Agindua, otsailaren 20koa, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariak emana, ofizialki onarturiko Astialdiko Eskolek astialdiko zuzendari eta begirale izateko ematen dituzten ikastaroen arauak ezartzen dituen.

1.- Nafarroako Gobernuak aurreikusita al du, Nafarroako Gazteriaren Institutuaren bidez, aisialdiko eskolen araudia eta eskola horiek eskaintzen dituzten ikasketak egungo errealitatera egokitzeko?

2.- Baiezkoan, zer urrats egin dira orain arte eta zer urrats aurreikusten da egitea? Egindakoen zerrenda eta egindakoen epeak jaso nahi nituzke.

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Galdera, zezenketetarako azientarendako laguntzen 2021eko deialdiari buruzkoa.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko galdera, zezenketetarako azientarendako laguntzen 2021eko deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion.

Noizko aurreikusten duzue zezenketetarako
aziendarendako laguntzen 2021eko deialdia?

Iruñean, 2021eko urriaren 5ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

Galdera, Lázaro Galdiano Fundazioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko lankidetzaz hitzarmenari buruzkoa.

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkezturiko galdera, Lázaro Galdiano Fundazioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko lankidetzaz hitzarmenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Indarrean dirau Lázaro Galdiano Fundazioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko lankidetzaz hitzarmenak?

Ezezkoan, noiztik eta zergatik?

Iruñean, 2021eko urriaren 7an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

Proposamena, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 13an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua aldatzeko proposamena, indarreko Langileen Estatutuaren laugarren xedapen gehigarriekin eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren hirugarren xedapen gehigarriekin bat.

1. Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua aldatzeko proposamena, honekin batera doana, onestea.

2. Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua aldatze proposamena Erregelamendu Bartzordera igortzea, honek erabateko legegintza eskumenez onetsi dezan.

3. Aipatu Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua aldatzeko proposamenari zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, urriaren 18ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.

4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea (10-21/OTL-00001).

Iruña, 2021eko urriaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Proposamena, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Parlamentuko Langileen Estatutua da antolaketaren eta langileen alorrean autoaraugintza printzipioa ezartzen eta bermatzen duen oinarrizko araua, Parlamentuaren autonomiaren printzipio orokorretik eratorrita. Lege-maila eta -indarra dauzka, Konstituzio Auzitegiak nahiz Auzitegi Gorenak adierazi izan duten bezala.

Langileen Estatutuaren aldaketa hau zenbait arazoirend onoriozkoa da. Batetik, administrazio parlamentarioa birmoldatu eta modernizatzeko prozesuari jarraipena ematen dio. Prozesu hori antolaketa-erregelamenduaren aldaketarekin hasi zen, non besteak beste zerbitziburuen ordainsarien homogeneizazioa jasotzen baita. Atalburutza berrien ordainsari-araubidea ere ezartzen da, haien ezarpenerako beharrezkoa baita. Bestalde, zenbait artikulua aldatzen dira, horiek oinarrizko araudira egokitzeko: administrazio-errekurtso arrunta ordeztzen da gora jotzeko errekurtsoarekin, eta aukerako berraztertze-errekurtsoa eskaintzen da; sartzeko hautaprobetan parte hartzeko baldintzak egokitzen dira halako moldez non aintzat hartzen baitira bai lizentziadunak bai gradudunak, bai eta Europar Batasuneko kide diren gainerako estatuetakoa herritarrek ere sarbidea izatea. Halaber jasotzen da lekualdatze-lehiaketarik ez dela izaneren Kontuen Ganberako eta Foru Komunitateko Administrazio funtzionarioekin, 26. artikuluari testu berria emanez; eta, horren eskutik, indargabetu egiten da Nafarroako Parlamentuko lanpostuak lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeari buruzko Erregelamendua, Nafarroako Parlamentuak 2007ko otsailaren 26ko erabaki bidez onetsia. Azkenik, azpimarratu beharrezkoa da artikulua berri bat sortu dela, telelana urruneko zerbitzuematearen modalitate gisa arautzen duena, lanpostuaren zereginak horrela bete daitezkeenean eta zerbitzuaren beharrezanek horretarako modua emanda, betiere. Artikulu horren osagarri dira berriki onetsiak diren arauak, Nafarroako Parlamentuko langileek beren lanaldia telelana-araubidean egiteari buruzkoak.

Langileen Estatutu indardunaren laugarren xedapen gehigarriak ezarritako prozedurari eta Parlamentuko Erregelamenduko hirugarren xedapen gehigarriari jarraikiz, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua aldatzen da, nondik norako hauekin:

Artikulu bakarra. Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua aldatzen da, nondik norako hauekin:

Lehena.- Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 6. artikuluko 1. eta 2. apartatuak aldatzen dira. Honako testu hau izanen dute:

“1. Lehendakariak eta legelari nagusiak langile-arloan emandako ebazpenak direla-eta errekurtsioa aurkeztu ahalko zaio Parlamentuko Mahaiari, hilabeteko epean gora jotzeko errekurtsioa aurkeztuz.

2. Mahaiak langile-alorrean harturiko erabakien aurka zilegi izanen da aukerako berraztertze-errekurtsioa edo administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztea, jurisdikzio hori arautzen duen araudiari jarraikiz. Arlo honetan errekurtsioak ebazten dituzten Mahaiaren erabakien aurka zilegi izanen da zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztea”.

Bigarrena.- Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 8. artikuluko 2. eta 4. apartatuak aldatzen dira. Honako testu hau izanen dute:

“2. Teknikariei dagokie lizentziadun, gradudun edo diplomadun unibertsitate-titulua izatea eskatzen duten eginkizun profesionalak edo zuzendaritza-egitea, Nafarroako Parlamentuko beste funtzionario batzuei esleituta ez daudenak. Teknikarien kidegoa bi eskalaz osatuta egonen da:

- Goi mailako teknikarien eskala.
- Teknikari diplomadunen eskala”.

“4. Transkribatzaileen kidegoari dagokio Nafarroako Parlamentuko organoen bilkurak transkribatu eta grabatzeko zereginak betetzea eta Parlamentuaren argitalpenak editatzea; exekuzio, laguntza eta izapidetzeko administrazio-zereginak betetzea; eta mekanografia-lanak, artxibolaria eta antzekoak”.

Hirugarrena.- Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 9. artikuluko 2. apartatua aldatzen da. Honako testu hau izanen du:

“2. Hautapen probetan onartua izateko, beharrezkoa izanen da:

a) Espainiar nazionalitatea edukitzea eta hamasei urte beteta izatea, eta, hala badagokio, nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina ez gainditzea.

Europar Batasuneko zuzenbideari jarraikiz, Europar Batasuneko kide diren beste estatuetako nazionalitatea dutenek ere sartzera izanen dute lanpostu publiko guztietan, espainiarrei eskatzen zaizkien baldintza beretan, salbu eta botere publi-

koaren egikaritzean zuzenean edo zeharka parte hartzea dakarten lanpostuetan eta Estatuaren edo administrazio publikoen interesak defendatzea helburu duten eginkizunetan.

Aurreko lerrokadan ezarritakoa aplikatuko zaie, orobat, espainiarren eta Europar Batasuneko kide den beste estatu bateko nazionalitatea dutenen ezkontideei, zuzenbidearen arabera bananduta ez badaude, bai eta haien ondorengoei eta ezkontidearen ondorengoei ere, zuzenbidez bananduta ez badaude, baldin eta ondorengoek hogeita bat urte baino gutxiagoko adina badute edo, zaharra-goak izanda ere, haien bizkar bizi badira.

Orobat aplikatuko zaie Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko hitzarmenen aplikazio-esparruan dauden pertsonen, haietan aplikatzekoa denean langileen zirkulazio askea.

Nafarroako Parlamentuak, bere eskumenen esparruan, zehaztuko du zein diren Europar Batasuneko kide diren gainerako estatuetako nazionalitatea dutenek betetzerik ez duten lanpostuak.

b) Kasuko titulua edukitzea, edo eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean hura eskuratzeko moduan egotea.

c) Epai irmoz desgaitua ez egotea eginkizun publikoak betetzeko.

d) Kasuko eginkizunak betetzea eragozten duen gaixotasunik edo akats fisikorik ez edukitzea.

e) Deialdi bakoitzean ezartzen diren betekizunak betetzea”.

Laugarrena.- Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 10. artikuluko a) eta b) letrak aldatzen dira. Honako testu hau izanen dute:

“a) Zuzenbidean lizentziadunaren edo gradudunaren titulua, legelarien kidegoan sartzeko.

b) Lizentziadunaren, gradudunaren, arkitektoaren, ingeniari teknikoaren, unibertsitateko diplomadunaren, arkitekto teknikoaren edo hirugarren graduko lanbide-heziketako titulua, teknikarien kidegoan sartzeko”.

Bosgarrena.- Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 13. artikuluko 1. apartatua aldatzen da. Honako testu hau izanen du:

“1. Nafarroako Parlamentuko funtzionarioaren izaera honako arrazoi hauetakoren batengatik galitzen da:

a) Uko egiteagatik. Uko horrek ez du desgaituko funtzio publikoan berriro ere sartzeko.

b) Espainiar nazionalitatea edo Europar Bata-suneko kide den beste edozein estatutakoa gal-
tzea, salbu eta aldi berean lortzen denean kide
den beste estatu bateko nazionalitatea. Halaber,
galdu egiten denean estatutu honetako 9. artiku-
luko 2. apartatuaren a) letran xedatutakoaren arabe-
ra lanpostu publiko bat espainiarren baldintza
beretan eskuratzeko gaitzen duten baldintzetako
edozein, salbu eta interesdunak 2. apartatuaren a)
letra horretan adierazten diren baldintzetako beste
edozein betetzen badu.

c) Zerbitzutik kentzearen diziplina-zehapena-
gatik.

d) Desgaikuntza absolutuko edo kargu publiko-
rako desgaikuntza bereziko zigor nagusi edo eran-
tsiagatik.

e) Zerbitzu aktibora ez itzultzeagatik eszeden-
tzia berezia edo borondatezkoa amaitu ondoren,
salbu eta destinoaren zain egotera pasatzearen
kasuan”.

Seigarrena.- Nafarroako Parlamentuko Langi-
leen Estatutuko 17. artikuluko 1. apartatuari l) letra
berria gehitzen zaio, honako testua duena:

“l) Nafarroako Parlamentuko zerbitziburutza
batean jarduteko izendatuak direnean”.

Zazpigarrena.- Nafarroako Parlamentuko Lan-
gileen Estatutuko 26. artikulua aldatzen da. Hona-
ko testu hau izanen du:

“26. artikulua. 1. Lanpostu hutsak beteko dira,
Mahaiak Langileen Batzordeari entzun ondoren
erabakitakoari jarraikiz, merezimendu-lehiaketaren
bidez edo izendapen askearen bidez.

2. Halaber, Mahaiak zilegi izanen du erabaki-
tzea funtzionarioek behin-behinekoz jardun deza-
tela beren maila berekoa izanik haiek titular diren
lanpostuarena edo altuagoa den kategoria bateko
lanpostu batean, baldin horretarako beharrezkoa
den titulazioa edo prestakuntza badaukate.

Behin-behinekotasun hori edozein unetan a-
tzera bota ahalko du Mahaiak”.

Zortzigarrena.- Nafarroako Parlamentuko Lan-
gileen Estatutuko 27. artikuluko 1. apartatuko j)
letra aldatzen da. Honako testu hau izanen du:

“j) Lizentzia eta baimen ordainduetarako nahiz
ordaindu gabeetarako, erregelamenduz zehaztuko
diren kasu eta baldintzetan”.

Bederatzigarrena.- Nafarroako Parlamentuko
Langileen Estatutuko 29. artikuluko 1. apartatuko
c) letra aldatzen da, eta 3. apartatuari b) letra
berria eta 29. artikuluari 6. apartatu berria gehi-
tzen zaizkie. Hona horien testuak:

“c) Artikulu honen 4, 5 eta 6. apartatuek aipa-
gai hartzen dituzten ordainsariak”.

“b) Zuzendaritza postuko osagarria”.

“6. Zerbitziburutzei dagozkien ordainsariak A
mailako soldata oinarri hartuz zehaztuko dira, eta
osagarriek ere A maila hartuko dute erreferentzia-
tzat, zerbitzibururu diharduen pertsona zein
maila/taldetakoa den ere. Horien zenbatekoa plan-
tilla organikoan zehaztuko da”.

Hamargarrena.- Nafarroako Parlamentuko
Langileen Estatutuari 30. bis artikulua berria gehi-
tzen zaio. Hona testua:

“30. bis artikulua. Atalburutzako eta beherago-
ko unitateetako burutzen lanpostuen kasuan,
zuzendaritza-postuko osagarria kalkulatu da
erreferentzia gisa hartuz A mailari/taldeari dago-
kion hasierako soldata, kontuan hartu gabe atal-
buruak duen lanpostu-maila/taldea. Horren zenba-
tekoa plantilla organikoan zehaztuko da.

Osagarri hori bateraezina izanen da aparteko
orduengatiko diruzko ordainak jasotzearekin”.

Hamaikagarrena.- Nafarroako Parlamentuko
Langileen Estatutuko 33. artikuluko 4. apartatuko
a) letra eta 6. apartatua aldatzen dira. Hona
hemen horien testu berriak:

“a) Hauteskundeetara aurkezten diren zerren-
dek gutxienez zazpi hautagairen eta ordezeko hiru-
ren izenak jaso beharko dituzte”.

“6. Langileen Batzordea lau urtean behin berri-
tuko da, artikulua honetan ezarritako prozedurari
jarraikiz. Hala ere, Nafarroako Parlamentuko
Mahaiak hauteskunde berrietarako deia egiten du
batzordekideen 100eko 50 baino gehiagok postua
utzi eta modurik ez dagoenean postu horiek arti-
kulu honetako 4. apartatuko f) letrak aurreikusita-
ko ordezen automatikoaren bitartez betetzeko.

Orobat, sindikatuek zilegi izanen dute adminis-
trazio parlamentarioari eskatzea, lau urteko kar-
gualdia amaitu aurreko lau hilabeteetan, Langileen
Batzorderako hauteskundeak egin daitezzen. Baita
aurreko paragrafoan aurreikusitako egoera gerta-
tzen denean ere, baldin bederatzi hilabete baino
gehiago falta badira kargualdia amaitzeko”.

Hamabigarrena.- Nafarroako Parlamentuko
Langileen Estatutuari 37. bis artikulua berria gehi-
tzen zaio. Hona testua:

“37. bis artikulua. Telelana.

1. Telelana urruneko zerbitzu-ematearen
modalitate bat da, zeinean, zerbitzuaren beharri-
zanek horretarako modua emanaz gero, lanpos-
tuaren zereginak Parlamentuaren instalazioetatik

kanpo bete baitaitezke, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz.

2. Telelan bitarteko zerbitzu-ematea esanbidez baimendu beharko da, eta bateragarria izanen da modalitate presentzialarekin. Betiere borondatezkoa eta atzera egiteko modukoa izanen da, salbu eta ongi justifikaturiko ezohiko kasuetan. Telelana eginen da estatutu hau garatzeko jaulkiko diren arauak adierazitako moduan. Arau horiek kasuko alorreko negoziazio kolektiboaren langai izanen dira, eta zerbitzu-ematearen modalitate hau erdiesteko irizpide objektiboak jasoko dituzte.

Telelanak lagungarri izan beharko du lana hobeki antolatzeko, helburuak identifikatuz eta horien lorpena ebaluatuz.

3. Telelanez diharduten langileen betebeharrak eta eskubide indibidual nahiz kolektiboak, estatutu honetan jasoa, modalitate presentzian diharduten gainerako langileen berak izanen dira, barne harturik laneko arriskuaren prebentzioarako aplikatzeko den araudia. Salbuespen dira zerbitzu-emate presentzialak berezko dituenak.

4. Modalitate honetan diharduten pertsonei, Parlamentuak beren jardunerako beharrezkoak diren bitarteko teknologikoak eskuratuko dizkie. Bitarteko horiek telelan-erabilera huts-hutserako izanen dira”.

Hamahirugarrena.- Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko bigarren xedapen gehigarria aldatzen da. Honako testu hau izanen du:

“Bigarrena. 1. Estatutu honek aurreikusten ez duen orotan, aplikatzekoa izanen da 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutua onesten duena, bai eta hori aldatzen duten foru legeak ere, ezertan galarazi gabe 34.2 artikuluan ezarritako eskumenak. Hala-ber aplikatuko da, ordezkotza bezala, Foru Komunitateko administrazio funtzionarioen araubideari buruzko araudi indarduna, jardueraren parlamentarioarekin bateraezina ez den heinean”.

Hamalagarrena.- Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko zazpigarren xedapen gehigarria aldatzen da. Honako testu hau izanen du:

“Zazpigarrena. Nafarroako Parlamentuak egiten dituen funtzio publikoan sartzeko deialdietan, lanpostu hutsen ehuneko 5 baino txikiagoa izanen ez den lanpostu-kopuru bat gordeko da ehuneko 33 edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonen bete ditzaten, betiere hautaprobak gainditzen badituzte eta, dagokion unean, aipatutako desgaitasun-gradua eta hori kasuko zeregin eta funtzioak betetzearekin bateragarria dela frogatzen badute”.

Hamabosgarrena.- Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko bederatzigarren xedapen gehigarria aldatzen da. Honako testu hau izanen du:

“Bederatzigarrena. Huts-hutsik graduari eta antzinatasunari dagozkien ordainsarrietan eraginik, Parlamentuko funtzionarioei eta langile kontrata-tuei kontuan hartuko zaie, aitortutako zerbitzuez gain, soldaduska edo ordezkotza gizarte zerbitzua egiten emandako aldia, baldin eta ez bada haiekin batera suertatu denboran”.

Xedapen gehigarria. Artikulu bakarreko bederatzigarrenean egindako aldaketak efektu ekonomikoak sortuko ditu izendapenak egiten direnetik. Beheragoko unitateetarako zuzendaritza-postuko osagarriaren kasuan, funtzionarioek postu horietako jarduna jarraitutasunez betetzen dutenean, horren efektu ekonomikoak hasiko dira Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen plantilla organikoko aldaketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean.

Xedapen indargabetzailea. Indargabetu egiten dira estatutu honetan ezarritakoarekin kontraesanetan dauden xedapen guztiak; eta, zehazki, Nafarroako Parlamentuko lanpostuak lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeari buruzko Erregelamendua, Nafarroako Parlamentuaren 2007ko otsailaren 26ko erabakiaren bidez onetsia.

Azken xedapena. Aldaketa honek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra. Nafarroako Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko da.

